

1999. EKITALDIKO TXOSTENA

1. HONDAKINEN SORKUNTZA.

Iazko urteko lehenengo zortzi hilabetetako txostenean aurreratzen genuen bezala, hondakinak **nabarmen igo** dira. 1.995.urteetik gaurdaino gorantzako joera bat ari da ematen, urtez urteko gehikuntza finkoekin. Iazko urtean gehikuntza hau oraindik ere handiagoa izan da, hala ere, gertaera hau kezkarriak ez diren bi arrazoiengatik izan da.

Lehendabizi, azpimarratu "Dendentzat eta Tailerrentzat Kartoi Bilketa" berriak izan duen arrakasta. Honek izan duen harrera ezin hobeak eragin handia izan du hondakin igoeran. Orain arte kartoi honen zati handi batek zaborregian bukatzen zuen hondakin industrialekin batera, beste zati bat erre egiten zen eta bazegoen beste zati bat Zumarragako biltzaile batek jasotzen zuena ere, batez ere Urola Garaiko saltokietan. Bere jarduera uztean kartoi hau gu hasi gara jastozen. Hondakin sorkuntzari dagokionez, kartoi hauek ez zeuden gure azkeneko urtetako estatistiken barruan baino ia kontutan izan ditugu eta "herritako" hondakintzat onartzen ditugu

Bigarrenik, ia beste bilketa berri bat ere hasi dugu, "Inausketa eta Lorategietako hondakin bilketa" hain zuzen ere. Hondakin hauek gure herrietako lorategiei egiten zaien zainketetan sortzen dira, ondoren zaborregian gordetzen dira birziklatuak izateko eta konpost edo ongarri bihurtzeko. Aipatu Europako Direktiba den 1999/31/CE-ren arabera, zaborregira eramaten diren lorategietako hondakinak ere "herritar-tzat" hartu behar ditugula. Hondakin hau ere, orain arte, ez zen kontutan edukitzen hiri-zaborren kantitateak kalkulatzeko.

Zaborren ez ohizko gehikuntzan bi faktore hauen eragina oso zuzena izan da, hala ere gertaera hau **ez da inolaz ere kezkarria**, izan ere hondakin hauen erabilera biriziklapena izango baita, eta ez jaurtiketa.

Bilketa berri hauek alde batetara uzten baditugu eta beste arrazoiak begiratu, ondorio hau atera dezakegu, hondakin gehikuntzan eragin handiena duen faktorea **etxeetako zaborra** dela. Gertaera hau ohizkoa ari da bihurtzen azken 5 urte hauetan. Lehen esan

den bezala, urtez urte gehikuntza finkoak ari dira ematen eta ez dauka aldatuko denaren itxurarik.

Gehien **hazi** diren zabor-bilketako **ibilbideak bi izan dira**. Bata Beasaingoa da eta bestea Goierriko herri txikiak egiten dituen, hau da, Zegama, Segura, Idiazabal, Ataun, Legorreta, etab.

Hau dena argitu ondoren, aipatu baita ere **birziklapenean marka guztiak ahutsi ditugula**. Gaur egun, etxean sortzen ditugun 100 kilogramotatik 20 birziklatu egiten dira eta beste 80ak zabortegian bukatzen dute. Analisi hotz eta azalekoa eginez gero zera pentsatu daiteke, emaitzak ez direla bat ere onak eta hondakinen gehiengoa (%80) zabortegira joaten dela. Hala ere berriro ere argitu zabor guztia ez dela berreskuragarria eta kasu hoberenean ere %37 besterik ezin dela birziklatu. Beste guztia, hau da %63a, gaur egun dagoen teknologiarekin ezin da berreskuratu ez badugu erabiltzen balorizazio energetikoa (errausketa energiaren aprobetxamendurekin). Honek esan nahi du berreskuratu daitekenaren %55a ari garela berreskuratzen eta gainera herrialde aurreratuenetan ere oso gutxitan gainditzen dute %65-70a.

Nahiz eta iaz asko hobetu den birziklapenean, ez da nahikoa izan zabortegira botatzen ditugun zaborren gehikuntza parekatzeko. Beste modu batetara esanez, nahiz eta birziklapena hobetu hondakinen jaurtiketa gorantza doa urtez urte. Bestalde esan, joera hau ez dela gurea bakarrik izan, aurreratutako beste herrialdeetan ere berdin ari baita gertatzen. Adibide bezala esan EEBB-etan ere birziklapenean marka guztiak ahutsi direla baina zaborren sorkuntzan ere bai.

Datu hauek kontutan izanik, Sasieta Mankomunitateko biztanle batek 1999. urtean zehar **424 kilogramo sortu ditu**, hau da, egunero kilogramo 1 eta 162 gramo.

Azaldu 1995ean, Sasieta mankomunitateko biztanleok 313 kilo sortzen genituela bakarrik gaur eguneko 424n kontra. Hau da, gaur egun orduan baino 111 kilo gehiago sortzen ditugu urtean zehar. Egia da gaur egun askoz gehiago birziklatzen dugula ere.

2. GAIKAKO BILKETA.

Lehenengo atalean esan den bezala "Gaikako Bilketan" lortu diren emaitzengatik zoriondu behar dugu gure burua. Egiten ditugun bilketa guztiak hobetu dira Europako herrialde hoberenen parean jarri arte.

Orain dela 2 urte, 1998an, %15 birziklatzen zen, iaz aldiz %20ra iritsi gara. Hobekuntza nabarmena da, urtez urteko joera ona izanik ere aurtengo igoera oso garrantzitsua izan da eta. Aipagarria benetan Mankomunitateko hastepenetatik ez baitzen ezagutzen horrelako hobekuntzarik.

Begiratu dezagun gaikako bilketa banan banan:

2.1. BEIRA BILKETA.

Orain arte bezala, beiraren bilketa da hiritarren artean erantzun hoberena lortzen duena. Iazko urtean berriro ere bildutako kantitateak gehitu egin dira eta berreskuraketa portzentaia hoberena ere berak lortu du. Hain zuzen ere, gure etxean sortzen diren 100 kilogramotatik 70 kilogramo edukiontzi orlegira botatzen ditugu, eta beste 30 kilogramoak aldiz zaborretara joaten dira. Berreskuratze maila hau lortzeko gutako bakoitzak iazko urtean 21,4 kilo bota zituen edukiontzi berdera.

Birziklatze portzentai honekin Europako herrialde hoberenen parean jartzen gara beirari dagokionez. Adibidez Alemania, Noruega, Suedia edo Holanda. Gure atzetik Frantzia, Italia, Erresuma Batua, Irlanda edo Danimarka leudeke.

Espainiari begira oso aurretik gaudela esan daiteke. Gipuzkoan bertan ere, beira birziklapenean hoberenetarikoa, aurreko taldean gaude.

2.2. PAPER ETA KARTOI BILKETA.

Paper eta kartoi bilketak izan dira 1999ko ekitaldiko izarrak. Alde batetik edukiontzi urdinetako bilketa eta bestetik dendei eta tailerrei egiten zaien bilketa erabat hobetu dira eta orain arteko markak ahutsi dira.

Bildutako paper eta kartoiaren gehikuntza ikusgarria izan da, eta honen ondorioz punta puntan dauden Europako herrialdeengana hurbildu gara.

Orain dela 2 urte, 1998an, Europa mailan paper bilketan Erdiko postuetan ginen. Iaz, Holanda, Noruega edo Danimarka bezalako herrialde batzuren mailara ailegatu ginen, eta gure aurretik Austria, Alemania, Finlandia eta Suedia bakarrik leudeke. Hobekuntza %45tik %55era izan da, hau da, urte betean 10 puntu hobetu ditugu. Horretarako, mankomunitateko biztanle bakoitzak batazbestean 40 kilo paper eta kartoi berreskuratu behar izan ditu.

Iazko ekitaldirako geneuzkan helburu garrantzitsuenetako bat oso ondo bete dugula esan daiteke. Helburu hau, "Denda eta Tailerre" egiten zaien kartoi bilketa erabat sendotzea zen, eta ikusienez bere garaian egin zen sistema aldaketarekin bildutako kantitateak asko igo dira, ia hirukoitza hain zuzen ere.

Edukiontzia urdinetako bilketan ere aipatzekoa da herritarren erantzuna, honetan ere oso emaitza onak izan ditugu eta.

2.3. ONTZI ARINEN BILKETA.

Iazko urtean proposatu zen beste helburu nagusi bat edukiontzia horiko bilketa erabat sendotzea izan zen. Horretarako udaberri eta uda garaian konzienziario kanpaina bat garatu zen. Kanpaina horren emaitzak orain ari gara jasotzen.

Iazko eta orain dela 2 urtetako bi denboraldi konparagarri hartuz gero, ikus daiteke gehikuntza nabarmena gertatu dela, %26ko hobekuntza hain zuzen ere. "Kantitate" hobekuntza honetaz aparte bildutako materialaren "kalitatea" ere asko hobetu da. Beraz, esan daiteke bete ditugula ezarritako helburuak. Hobekuntza hau irailetik aurrera somatu da batez ere.

Edozein kasutan ere mankomunitateko batazbestea oraindik ez da ailegatu 1995. urtean hasi zen esperientzia pilotoko maila berdinetara. Gogoratu garai hartan Beasain, Ordizia, Lazkao eta Olaberria hasi zela bilketa hau. Normala den bezala orain ere lau herri hauek dira emaitza hoberenak lortzen dituztenak. Mankomunitateko beste herrietan esan daiteke bilketa oraindik ere hasi berria dela eta denbora beharko dutela maila berdina lortzeko.

Hala ere, lehen esan bezala, oso pozik gaude bilketa hone bilakaerarekin eta jasotako materialaren kalitatearengatik.

2.4. GAIKAKO BILKETA HERRIZ HERRI.

Nahiz eta Mankomunitateko batzbestekoa benetan ona den, jakina da herri batzuen emaitzak oraindik ere nabarmenagoak direla.

Hurrengo orrialdetako taulatan ikus daitezke herri bakoitzaren bilketa-emaitzak. Datu gehienak adierazgarriak dira, herri txikietan egiten den beira bilketarena ezik, jatetxeetan bildutako kantitateak herritarren artean banatzen baitira. Biztanle gutxi direnez desbideratzea nahiko garrantzitsua da eta esan daiteke datu hori ez dela herritarrak biltzen dutenaren erakusgarri.

Bestalde, taula hauetan ez dira batu denda eta tailerretan biltzen den kartoi kopurua, kantitate hauek ez baitira kontrolatzen herriz-herriz. Kartoi hau herritarrei egotziz gero beste 12 kg. gehitu behar dira pertsona bakoitzeko.

Hau argitu ondoren zera ikusten da, ordiziarrak direla gaikako bilketan gehien parte hartzen duten herritarrak. Bigarren urtez segidan Ordizia da herri hobereana atal honetan, eta diferentzia handiz gainera, asko hobetu baita urte batetik bestera, %21 hain zuzen ere.

Bigarren postuan Beasain, Urretxu eta Legazpi daude parekatuta. Azpimarratu bereziki Urretxu, 98tik 99ra egin duen hobekuntza Ordiziarena baino hobexeagoa izan baita, %23koa hain zuzen ere.

Herri txikien artean Itsasondo eta Ormaiztegi azpimarratu, oso emaitza onak lortu dituzte eta. Adibidez Itsasondon, urte beten bakarrik, esperientzia pilotoa zeukaten herri handien maila berdina lortu dute ontzi bilketan, egia esateko hobetu ere egin dituzte herri handi hauen emaitzak.

HERRIA	BEIRA Kg/bizt.	PAPERA Kg/bizt.	ONTZIAK Kg/bizt.	GUZTIRA Kg/bizt.
ORDIZIA	24,8	34,9	7,1	66,8
LEGAZPI	21,5	31,6	4,9	58,0
BEASAIN	20,7	31,0	6,1	57,8
URRETXU	24,9	28,2	4,7	57,8
ORMAIZTEGI	27,7 (*)	29,6	4,0	61,3
ITSASONDO	21,4	28,0	7,6	57

(*) Datu hau ez da erakusgarria

Herriz herriko "sailkapen" hau 98koaren oso antzekoa da. Urte honetan ere herri hauek izan ziren besteen artean nabarmendu zirenak, Urretxu izan ezik, iaz asko hobetu den herria. Beraz herri hauek zoriondu besterik ez eta besteak ere animatu maila hauetara ailegatu daitezten.

3. ESTATUKO HONDAKIN PLANAREKIN KONPARAKETA.

Orain dela gutxi, urtarrilaren 5ean hain zuzen, Espainiako Ingurugiro Ministeritzak "Plan Nacional de Residuos Urbanos" deituriko plana argitaratu du. PNRU honetan, beste gauza batzuren artean, estatu mailako helburu batzuk eta hauek betetzeko egutegiak ezartzen dira. Ikus dezagun Sasieta mankomunitatearen gaur eguneko egoera helburu hauei dagokionez.

Ezer baino lehen azpimarratu helburu hauek estatuko batzbestekoak direla. Horrek esan nahi du ez dela beharrezkoa helburu hauek eskualde guztietan betetzea, denon artean baizik.

Hobetu konpara ditzazkegun puntuak edo guretzat eragin handiena izan dezaketenak hauek dira:

- 2002. urtean ezingo dugu 441 kg. baino gehiago sortu urtean zehar. Gogoratu dezagun gaur egun 424 kg./urte/bizt. Sortzen ditugula, beraz momentuz helburu hau beteko genuke. Hala ere, orain daukagun joera berdinarekin jarraituz gero zaila izango da muga hau ez gainditzea.
- Gaur egun Euskadiko batzbestea ia 504 kilotakoa da, estatuko handienetarikoa, beraz helburua betetzeko zaborren sorkuntza jeitsi beharko genuke.
- 2006. urterako 1000 biztanle baino gehiagoko herri guztiak eduki beharko dute beira, paper eta ontzi bilketa. Sasieta Mankomunitateak 98tik betetzen du puntu hau.
- Gutxienez, 500 biztanleko gutxienez beira edukiontzi bat jarri beharko da. Sasieta mankomunitatean 370 biztanleko edukiontzi bat dugu.
- Gutxienez, 550 biztanleko gutxienez paper edukiontzi bat jarri beharko da. Sasieta mankomunitatean 285 biztanleko edukiontzi bat dugu.
- Ez du aipatzen ontzi edukioztapena baina Sasietan 278 biztanleko 1 daukagu.
- 2001. urtean beiraren %50 birzikaltu beharko da eta 2006. urtean %75a. Sasietan dagoeneko %70 birziklatzen dugu eta egon dira garaiak %75 birziklatu dena ere. Beraz, lortu daitekela esan dezakegu.

- 2002. urterako paper eta kartoiaren %60 birziklatu beharko da eta 2006. urtean %75a. Gaur egun %55a birziklatzen da, beraz helburu hau ere bete dezakegula uste dugu.
- 2001. urteko ekainerako ontzien %25a birziklatu beharko da eta 2006. urterako %50a. Gaur egun %20 tik gertu gaude, beraz lehenengo helburua betetzea nahiko eskura ikusten dugu
- 2001. urterako egiten diren bilketa guztien batazbestekoa %19,5ekoa izan beharko da eta 2006. urterako %25ekoa. Sasieta dagoeneko lehendabiziko helburua betetzen dugu eta daramagun bilakaerarekin bigarrena betetzea ere ez dugu zaila ikusten.

Ikusten denez Sasieta Mankomunitatean birziklapen eta edukioztapen helburuak beteko dira arazo handiegirik gabe. Gehienak jada betetzen dira hain zuzen ere.

- PNRUak garbigune berrien eraikuntza ere agintzen du. Esate baterako 2001. urterako 50.000 pertsonak garbigune bat egon beharko da eta 2006. urterako 10.000 biztanle baino gehiago duten herriek garbigune bat eduki beharko dute. Sasieta Mankomunitatean badaukagu Garbigune bat Zumarraga, Urretxu eta Legazpirako 96. Urtetik aurrera eta hurrengo urterako beste bat eraikitzea espero dugu goierriko herrientzat. Honekin helburu hau ere beteko litzateke.

Hala ere badaude momentuz betetzeko zailak diren puntuak ere, adibidez, konpostaje, biometanizazio edota berreskuratze energetikoa (errausketa energiaren berreskuratzearekin). Helburu hauek lortzeko herri maila gaintzen duten erabakiak eta estrategiak behar dira. Hurrengo urtetan, zaborteziak bete eta itxi ahala, gai honi buruz hartuko diren etorkizuneko erabakiak landuko dituen gizarte-eztabaida emango da. Gaur egun, Sasieta mankomunitatean, konpostajeak hondakin begetaletara mugatzen da eta etorkizunean Legazpiko Ontziak sailkatzeko plantan ez onartutako materialekin berreskuratzen energetikoa egingo da.

Azkenik, aipatu zaborteziari buruzko Direktiba berriak guregan izango duen garrantzia. Epe laburrean aholkularitza berezia kontratatuk behar dugu Sasieta zaborteziaren direktibara birmoldaketa ikertu ahal izateko. Direktiba honek heltzen dituen gaiak hauek dira batez ere: zaborteziaren kudeaketa (iragaizkaketa, lur-azpiko uren kontrola, gasen kontrola, etab.), ixteko prozedura eta ondorengo mantenua.

4. LABURPENA

- Hondakinen kantitatea nabarmen **igo** da iazko urtean. Beste urte batzuetan baino gehiago.
- Hala ere gehikuntza hau **bi bilketa berri** hasi ditugulako gertatu da. Bata denda eta tailerretan egiten den kartoi bilketa eta bestea lorategietako hondarren bilketa. Bilketa hauengatik ez balitz izan beste urtetan bezala egongo ginateke.
- Dena den, hau kontutan izanda ere, 1999. urtean aurreko ekitaldian baino **zabor gehiago** jaso dugu zabortegian. Egoera hau 1995. urtetik aurrera ari da gertatzen eta ez dugu aldaketarik somatzen.
- **Birziklapenean** ere **sekulako emaitzak** lortu dira. Emaitza hauek benetan onak izan dira, esate baterako batazbesteko birziklapenean %15etik %20ra igaro gara. Erreferentzi bezala esan daiteke Gipuzkoako "Hiri Hondakinak Kudeatzeko Planean" maila hau 2005. urtean lortzea espero zela. Bestalde Espainiako Ingurugiro Ministerioaren "Hondakinen Plan Nazional"-eko helburuak ere betetzen ditugu birziklapenari dagokionez.
- Gaikako **bilketa guztiak hobetu** dira. Hauen artean **paper/kartoiarena azpimarratu** behar da, bere hobekuntza benetan ikusgarria izan baita, batez ere dendei egiten zaien bilketaren ondorioz. Gipuzkoako Hondakinen Planak 2007. urterarte ez zuen espero paper/kartoiaren maila horiek betetzea.
- Bestalde, emaitza hauekin **Europako** herrialde birziklatzaileenekin batera geundeke.
- **Beiraren** kasuan emaitza oso onak lortzen jarraitzen dugu eta **Europako** herrialde **hoberenetatik gertu** gaude. Aurtengo helburuetako bat bilketa hau hobetzea izango da herrialde hauen maila berdinerara ailegatzeko behingoz.
- **Ontzien** kasuan ere **hobekuntzaz** hitzegi behar dugu. Esperientzia pilotoa garatu zen herrietan berriro ere garai hartako emaitzak lortzen ari dira, eta gainera bildutako materialaren "kalitate" hobegoarekin. Beste herrietako joera ere oso ona dela esan behar. Oraindik ez daude beste herri hauen maila berdinean baino bide onean dabilta.

- **Herri txiki**en artean bilketa honek izan duen **harrera ona** ere azpimarratu, gehienek oso ondo erantzun baitute.
- Datu hauek kontutan izanda, edukiontzi horiaren bitartez egiten den bilketa indartzeko Iaz egin zen **kanpainak bere helburuak bete** dituela esan dezakegu. Emaidza hoberenak Iazko irailetik aurrera somatu ditugu.
- Bestalde esperientziak esaten digu emaitzen **hobekuntzan** zerbitzuaren **kalitateak** berebiziko **eragina** daukala. Zaila da emaitza onak lortzea eskeintzen den zerbitzua txarra baldin bada, nahiz eta erabiltzaileen konzientziarioa handia izan. Herritarren borondatea kalitatezko zerbitzu batzuetan ez bada isladatzen lortzen den eragina justu kontrakoa izango da.
- Kalitatearen hobekuntza ondorengo **ataletan oinarritzen** dela uste dugu: Edukiontzi kopurua handitu, hurbil egon daitezela, bilketa sarriago egin beteta egon ez daitezen, sektore bakoitzak daukan arazoentzat bilketa egokiak antolatu, kasu berezientzat erantzuna bilatu, edukiontzien garbitasuna hobetu, etab.
- Ekitaldi honetako helburu nagusia gaikako bilketa lehen aipatu ditugun atal horietan **hobetzea** izango da.
- Sasieta zabortegeari dagokionez, sortzen den **gasaren energiaren berreskuratzeko planta** bat eraikiko dugu. Gaur egun sortzen den gas hau bildu ondoren kontrolpean erre egiten da baina energia berreskuratu gabe.

Beasain, 2000.-eko apirilaren 19a

Sin.: Enrike Enparantza
Sail Teknikoa

Ikus.: Iñaki Erauskin
Zerbitzu burua